Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko irailaren 24a, astelehena — 184 — Lunes, a 24 de septiembre de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*02-129/2018 Foru Agindua, irailaren 11koa, aparteko kirol lehiaketak antolatzeko diru laguntzen 2018ko deialdia ebazten duena (Kirol arloko diru laguntzak: C.6 eranskina).*

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

2018ko apirilaren 17ko Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez onetsi ziren alde batetik kirol arloko diru laguntzak emateko oinarri orokorrak eta espezifikoak, eta bestetik, diru laguntza lerro bakoitzaren 2018. ekitaldiko deialdia. Aipatutako laguntzen artean, aparteko kirol lehiaketak antolatzeko laguntzak daude, eta horien emakida C.6 eranskinean jasotako oinarrietan arautzen da.

Diru laguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9.2 puntuan ezartzen denez, eskaerak Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusiko teknikariek aztertuko dituzte, eta balorazio txostena egingo dute. Txosten hori Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutakoak aztertu ditu Kirol Zerbitzuak eta txosten bat prestatu du eskaeren xedea diru laguntzak eman eta kopuruak zehazteko irizpideekin bat datorrela egiaztatuz.

Txosten hori lehen aipatutako ebaluazio batzordearen irizpenera jarri da eta Batzordeak 2018ko uztailaren 23ko bileran bere egin du. Ondoren, diru laguntza horiek emateko prozeduraren ebazpen proposamena igorri dio Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuari.

Kirol Zerbitzuak egindako txostenean eta horren ondorioz emandako eta foru agindu honetan jasotako ebazpen proposamenean zenbait eskaera ezetsi egiten dira arrazoi ezberdinengatik. Eskaera horiek eta ezesteko arrazoiak foru agindu honekin batera doan 2. eranskinean jasota daude.

10.2 oinarri orokorrak eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, TURISMO, JUVENTUD Y DEPORTES

*Orden Foral 02-129/2018, de 11 de septiembre, por la que se resuelve la convocatoria 2018 de las subvenciones para la organización de competiciones deportivas de carácter extraordinario (Subvenciones en materia de deportes: Anexo C.6).*

El diputado foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

Mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 17 de abril de 2018, se aprobaron las bases reguladoras generales y específicas del otorgamiento de subvenciones en materia de deportes, así como la convocatoria correspondiente al ejercicio 2018 de las distintas líneas de subvenciones. Entre dichas ayudas se encuentran las subvenciones destinadas a la organización de competiciones deportivas de carácter extraordinario, cuya concesión regulan las bases recogidas en el anexo C.6 de los que acompañan al citado acuerdo.

La base general 9.ª2 reguladora de estas subvenciones establece que las solicitudes correspondientes serán analizadas por el personal técnico de la Dirección General de Juventud y Deportes, quien elaborará un informe de valoración que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y la elevará al órgano competente para su aprobación.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y analizadas por el Servicio de Deportes las presentadas, dicho servicio ha emitido un informe en el que contrasta el objeto de las solicitudes con los criterios de concesión y cuantificación de estas subvenciones.

Este informe ha sido sometido a la Comisión Evaluadora a la que se ha hecho mención anteriormente, la cual, reunida el día 23 de julio de 2018, haciendo suyo el citado informe, ha elevado propuesta de resolución del procedimiento de concesión de estas subvenciones a este diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes.

El informe del Servicio de Deportes y la propuesta de resolución que del mismo se deriva y se traslada a esta orden foral contemplan, asimismo, la desestimación de una serie de solicitudes por diversos motivos, solicitudes y motivos de desestimación que se recogen en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral.

De conformidad con lo dispuesto en la base general reguladora 10.ª2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2018-06267

Era berean, argitaratze horrekin bete egiten da diru laguntzei publizitatea emateko obligazioa, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritakoa.

Horregatik guztiagatik, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ematea foru agindu honen 1. eranskinean agertzen diren entitateei bertan adierazitako diru laguntzak, aparteko kirol lehiaketak antolatzeko. (Gipuzkoako kirol elkarte eta erakundeek garatzen dituzten hainbat kirol ekintzatara zuzendutako diru laguntzak: C.6 eranskina).

*Bigarren.* Xedatzea dagokion gastua –guztira 30.000,00 euro– A 2672-020 2018 kontabilitate erreferentziaren kargura.

*Hirugarren.* Diru laguntzaren ordainketa eta likidazioa diruz lagundutako jardueraren datu errealen arabera egingo da. Horien balorazioa egingo da onuradunak justifikazio kontua aurkeztu ondoren. Justifikazio kontu hori 2018ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

*Laugarren.* Ezestea foru agindu honen 2. eranskinean jasotako diru laguntza eskaerak, bertan zehazten diren arrazoiengatik.

*Bosgarren.* Agintzea foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2018ko irailaren 11.—Ana Urkola Aranburu, idazkari teknikoa. (6267)

Asimismo, con la citada publicación se da cumplimiento a la obligación de dar publicidad de las subvenciones concedidas, prevista en el artículo 17.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En su virtud, el diputado foral del Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes,

RESUELVE

*Primero.* Conceder a las entidades que se relacionan en el anexo 1 de la presente orden foral, las subvenciones que se indican, para la organización de competiciones deportivas de carácter extraordinario. (Subvenciones destinadas a diversas actividades deportivas desarrolladas por los diferentes entes y asociaciones deportivas guipuzcoanas: anexo C.6).

*Segundo.* Disponer el gasto correspondiente –por un importe total de 30.000,00 euros–, con cargo a la referencia contable A 2672-020 2018.

*Tercero.* El abono y liquidación de la subvención se realizará de conformidad con los datos reales del acontecimiento subvencionado, que serán valorados una vez que la entidad beneficiaria presente la cuenta justificativa. Dicha cuenta justificativa habrá de presentarse con anterioridad al 31 de octubre de 2018.

*Cuarto.* Desestimar las solicitudes de subvención que figuran en el anexo 2 de los que acompañan a la presente orden foral, por las razones que en ese mismo anexo se señalan.

*Quinto.* Ordenar la publicación de la presente orden foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra la misma recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 11 de septiembre de 2018.—La secretaria técnica, Ana Urkola Aranburu. (6267)

APARTEKO KIROL LEHIAKETAK ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZAK
SUBVENCIONES DESTINADAS A LA ORGANIZACIÓN DE COMPETICIONES DEPORTIVAS DE CARÁCTER EXTRAORDINARIO

1. ERANSKINA / ANEXO 1
(Onartutako eskaerak / Solicitudes estimadas)

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Jarduera*<br>*Actividad* | *Emandako diru laguntza*<br>*Subvención concedida* |
|---|---|---|---|
| 2018-CEX1-000001-01 | Club Deportivo Fortuna | 3 Eurotour Sup 3 Eurotour Sup | 1.390,48 |
| 2018-CEX1-000002-01 | Beasaingo Arrastaka Mendi Kirol Taldea | Ehunmilak 2018/ Ehunmilak 2018 Campeonato de España Juvenil Femenino | 2.607,14 |
| 2018-CEX1-000003-01 | Elgoibarko Sanlo Eskubaloi Kirol Taldea | Espainiako emakumezko jubenilen txapelketa Campeonato de España Juvenil Femenino | 800,00 |
| 2018-CEX1-000004-01 | Real Club Nautico de San Sebastian | XIX Nazioarteko Estropada Donostia Hiria Vicente Munilla Memoriala<br>XIX Regata Internacional Ciudad de San Sebastián, Memorial Vicente Munilla | 1.042,86 |

EK\CV GAO-I-2018-06267

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate onuraduna*<br>*Entidad beneficiaria* | *Jarduera*<br>*Actividad* | *Emandako diru laguntza*<br>*Subvención concedida* |
|---|---|---|---|
| 2018-CEX1-000005-01 | Gaben Club Deportivo | III. Women's International Football Tournament Hondarribia<br>III. Tximistcup : Women's International Football Tournament Hondarribia | 1.564,29 |
| 2018-CEX1-000007-01 | Club Deportivo Fly Group | XXII. Donostiako Klasikoa 15k<br>XXII Clasica de San Sebastian 15k | 2.085,71 |
| 2018-CEX1-000008-01 | Club Deportivo Fly Group | 63. Donostiako Nazioarteko Krosa<br>63 Cross Internacional De San Sebastián | 1.738,10 |
| 2018-CEX1-000009-01 | Club Deportivo Fly Group | Punks Peak Amp; El Rollo<br>Punks Peak Amp; El Rollo | 1.390,48 |
| 2018-CEX1-000010-01 | Club Deportivo Kemen de Personas con Discapacidad | 33. Behobia Donostia desgaitasuna duten atletentzat<br>33 Behobia SS para atletas con discapacidad | 1.564,29 |
| 2018-CEX1-000013-01 | Club Ciclista Eibarres | «47. Valenciaga Memoriala" Txirrindulari Lasterketa<br>Carrera Ciclista "47 Memorial Valenciaga" | 1.564,29 |
| 2018-CEX1-000014-01 | Oargi Mendi Elkartea | T3T eta T2T Mendi Lasterketa<br>Carrera de Montaña T3T y T2T | 1.564,29 |
| 2018-CEX1-000016-01 | Real Club de Tenis de San Sebastian | Teniseko Nazioarteko Federazioaren ITF txapelketa<br>Campeonato ITF de la Federacion Internacional de Tenis | 1.216,67 |
| 2018-CEX1-000018-01 | Club Vasco de Camping | Altitoy Ternua<br>Altitoy Ternua | 1.911,90 |
| 2018-CEX1-000019-01 | Asociación Deportiva-Cultural Tximeleta | Tximeleta DSS18<br>Tximeleta DSS18 | 1.216,67 |
| 2018-CEX1-000020-01 | Lokatzetan Kirol Taldea | Euskal Herriko VIII. Mendi Duatloi Zirkuitua<br>VIII- Circuito de Duatlón de Montaña de Euskadi | 1.390,48 |
| 2018-CEX1-000021-01 | Telleriarteko Txirrindulari Elkartea | Espainiako Ziklokros Txapelketa<br>Campeonato España Ciclo Cros | 1.390,48 |
| 2018-CEX1-000022-01 | Asteasuko Aiztondo Klasikoa Batzordea | XV.Aiztondo Klasikoa – Patxi Alkorta Memoriala<br>XV Clásica Aiztondo - Memorial Patxi Alkorta | 1.216,67 |
| 2018-CEX1-000027-01 | Club Náutico de Hondarribia | Espainiako Raceboard- Windsrufing Kopa<br>Copa de España Raceboard- Windsrufing | 1.564,29 |
| 2018-CEX1-000030-01 | Bera Bera Rugby Taldea | Donostia Baiona Donostia Nazioarteko Martxa Zikloturista<br>Marcha Cicloturista Internacional Baiona Donostia | 1.042,86 |
| 2018-CEX1-000032-01 | Zarauzko Triatloi Elkartea | Zarauzko Triatloia 2018<br>Triatlón de Zarautz 2018 | 1.738,05 |
| Guztira / Total | | | 30.000,00 |

2. ERANSKINA / ANEXO 2
(Ezetsitako eskaerak / Solicitudes desestimadas)

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate eskatzailea*<br>*Entidad solicitante* | *Jarduera*<br>*Actividad* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|---|
| 2018-CEX1-000006-01 | Donosti Gain Sdad Cultural Deportiva | LV Pilota Txapelketa Juanito Alvarezen XXVI Oroimenezkoa<br>LV Campeonato de Pelota XXVI Memorial Juanito Alvarez | 1 |
| 2018-CEX1-000011-01 | Pulpo Eskubaloi Kluba | Emakumezko Jubenilen Espainiako Eskubaloi Txapelketaren Sektoreko Fasea<br>Fase Sector del Campeonato de España Juvenil Femenino de Balonmano | 3 |
| 2018-CEX1-000012-01 | Club Deportivo Internacional Intxaurrondo | 10 km-ko Gaueko Lasterketa musika puntuekin<br>Carrera Nocturna 10 Km con puntos musicales | 1 |

EK\CV GAO-I-2018-06267

| *Espediente zk.*<br>*Nº expediente* | *Entitate eskatzailea*<br>*Entidad solicitante* | *Jarduera*<br>*Actividad* | *Arrazoia*<br>*Motivo* |
|---|---|---|---|
| 2018-CEX1-000015-01 | Elgoibarko Udal Kirol Patronatua | XXVIII. Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa<br>XXVIII Torneo Internacional de Ajedrez de Elgoibar | 1 |
| 2018-CEX1-000017-01 | Oñatiko Atxintxiketan Atletismo K.E. | Oñatiko 10km Lasterketa 2018<br>Carrera 10 km de Oñati 2018 | 1 |
| 2018-CEX1-000023-01 | Santiagotarrak Sociedad Deportiva | 52. Bidasoako Nazioarteko Jaitsiera<br>52 Descenso Internacional Bidasoa | 1 |
| 2018-CEX1-000024-01 | Club Hielo Txuri Urdin | Errege Kopa 2017/2018<br>Copa del Rey 2017/2018 | 3, 2 |
| 2018-CEX1-000025-01 | Club Natación Easo | 36. Nazioarteko Eguberri Txapelketa - Foru Aldundia Sari Nagusia<br>36.Campeonato Internacional de Invierno - Gran Premio Diputación Foral | 4 |
| 2018-CEX1-000026-01 | Club Natación Easo | 75. Kontxa Badiako Igerialdia<br>75. Travesía de la Bahía de la Concha | 1 |
| 2018-CEX1-000028-01 | Grupo Ajedrecista Bergares | Bergarako Nazioarteko Xake Txapelketa Irekia<br>Torneo Internacional de Ajedrez Villa de Bergara | 1 |
| 2018-CEX1-000029-01 | Club Náutico de Hondarribia | Espainiako FinnTxapelketa<br>Campeonato de España Finn | 1 |
| 2018-CEX1-000031-01 | CD Aut Escudería Jaizkibel de Donostia | XL. Jaizkibelgo Igoera<br>XL Subida a Jaizkibel | 1 |

Ezesteko arrazoia.

1. Ez da iristen 30 puntuko gutxieneko puntuaziora (1.1. oinarri espezifikoa).

2. Gastuen aurrekontuak ez du gainditzen 5.000,00 euroren zenbatekoa (1.1 oinarri espezifikoa).

3. Eskaeraren xedea ez dator bat oinarri arautzaileetan xedatutakoarekin: ez da kadete edota gazte kategorietako Espainiako Txapelketako azken fasea (1.1 oinarri espezifikoa).

4. Jarduera egitea aurreikusten den data ez dagokio diruz laguntzekoa den 2018ko deialdiko aldiari (2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31ra bitartean) (1.2 oinarri espezifikoa).

Motivo de desestimación.

1. No alcanza la puntuación mínima de 30 puntos (base específica 1.1.).

2. El presupuesto de gastos no supera los 5.000,00 euros (base específica 1.1.).

3. El objeto de la solicitud no se ajusta a lo establecido en las bases reguladoras: no se trata de una fase final del Campeonato de España en las categorías cadete y/o juvenil (base específica 1.1).

4. La fecha prevista para la realización de la actividad no corresponde al período subvencionable en la convocatoria 2018 (entre el día 1 de noviembre de 2017 y el 31 de octubre de 2018) (base específica 1.2.).

EK\CV GAO-I-2018-06267